

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

5427

151/2020 EBAZPENA, azaroaren 27koa, Emergentziak erakundeko zuzendari gerentearena, zeinaren bidez Osakidetzako Emergentziak erakundearen Mantentze-lanetako eta Instalazioetako buruaren lanpostua (Parkeko arduraduna) izendapen askez betetzeko deialdia egiten den.

Mantentze-lanetako eta Instalazioetako Buruaren (Parkeko arduraduna) lanpostua hutsik dago. Hori dela-eta, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikuluko hirugarren arau komunean, Osakidetzaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan ezartzen denaren arabera, lanpostu hori izendapen askez betetzeko deialdi publikoa iragartzea erabaki du Zuzendaritza Gerentzia honek, honako oinarrien arabera

OINARRIAK

1.– Parte hartzeko baldintzak.

Deialdi honetan parte hartu ahal izango dute honako baldintza hauek betetzen dituztela egiaztatzen dutenek:

– Osakidetzako edozein zerbitzu-erakundetako langile finkoa izatea (estatutupekoa, funtzionarioa edo lan-kontratuduna) eta lanpostua jabetzan edukitzea dagokion talde profesionalean C3/D3.

– C3/D3 lanbide-taldeari dagokion titulazioa edukitzea.

– C3/D3 lanbide-taldean 2 urteko lan-esperientzia gutxienez edukitzea.

– Osasun Larrialdietako teknikari titulua edo anbulantzia asistentzialak gidatzeko habilitazioa, eta C motako gidabaimena.

– Uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan eta Osakidetzako Euskara Planean ezarritako gainerako betebeharrak.

2.– Kontuan hartuko diren merezimenduak.

– Emergentzietan egindako zerbitzuak, eta ondorioz, Erakundea ezagutzea.

– Lanpostuaren inguruko esperientzia eta ezagutzak, zehazki, anbulantzien eta beste ibilgailu batzuen mantentze-ari buruzkoak, baita anbulantzien zelula sanitarioari eta bere osagaiei buruzkoak ere.

– Gaitasuna izango du, batetik, taldeak eta zerbitzuaren jarduerari lotutako prozesuak antolatzeko, eta bestetik, jarduera horren garapenera lotutako baliabideak koordinatzeko.

Lanpostu hau betetzeko interesagarria izan daitekeen eta balioa erants dezakeen edozein merezimendu aurkeztu ahalko da.

3.– Euskararen ezagutza.

Euskararen erabilera Osakidetzan normalizatzeko den martxoaren 18ko 67/2003 Dekretuak, eta berau garatzen duten arauak, xedatutakoaren arabera baloratuko da.

4.– Eskabideak aurkezteko epea eta modua.

Interesdunek Osakidetzako Emergentziak Erakundeko Langileen Zuzendaritzan aurkeztu beharko dituzte eskabideak, helbide honetan: (M.^a Díaz de Haro, 53-48010 Bilbo). Horretarako, 15 egun balioduneko epea izango dute, Ebazpen hau EHAA-n argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Aurkeztu ahal izango dira, halaber, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erki-dearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritako eran.

Interesdunek eskabidea datu pertsonal guztiekin, eta dokumentatutako «curriculum vitae»-rekin batera, bidali beharko dute. Dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

- NANaren, pasaportearen edo gidabaimenaren fotokopia konpultsatua.
- Funtzionario edo estutupeko langile izendapenaren fotokopia konpultsatua edo, hala badagokio, lan-kontratu finkodun langilea dela egiaztatzen duen agiriarena.
- Baldintzak betetzea egiaztatzen duen dokumentazioaren fotokopia konpultsatua.
- Kontuan hartzeko merezimendu guztien fotokopia konpultsatua.

Ez da beharrezkoa izango aurreko paragrafoan adierazi den bezala egiaztatzea CV aplikazio informatiko korporatiboan behar bezala egiaztatuta badaude, beti ere izangaiak eskabidean horrela dela adierazi baldin badu.

5.– Balorazio Batzordea.

Batzorde bat eratuko da aurkezten diren eskabideak baloratzeko, eta izangaiari horren berri emango zaie.

Batzordeak, eskabideak baloratu ondoren, eginbide osagarriak gauzatzea erabaki dezake; eta izangaiari horren berri emango die.

Izangaien balorazioa egindakoan, eta berau kontuan hartuta, dagokion izendapena egiteko proposamena aurkeztuko da. Lanpostua hutsik uztea proposa dezake epaimahaiak, betiere aurrez txosten arrazoitua eginez, baldin eta izangaiak betetzen ez badituzte bete beharreko baldintzak.

Akta egingo da Batzordea biltzen den bakoitzean. Bertan, aurkeztutako izangaiak eta gauzatutako eginbide osagarriak (halakorik balego) zerrendatuko dira, eta lanpostua euretako bati esleitzeko edo deialdia bete gabe uzteko kontuan hartutako arrazoiak emango.

6.– Hautatzeko prozedura.

Inolaz ere ezingo dira baloratu deialdiaren iragarkia EHAA-n argitaratzen den egunean eduki ez diren merezimenduak, ezta eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen behar bezala aurkeztu eta egiaztatu ez direnak ere.

7.– Prozedurari amaiera ematen dion Ebazpena.

Hemen hasitako prozeduraren amaiera emango zaio (lanpostua esleitzea edo betetzeke uztea), Osakidetzako Emergentziak Erakundeko zuzendari gerentearen Ebazpenaren bidez, eta

2020ko abenduaren 18a, ostirala

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, Osakidetzako intranetean eta web-orri korporatiboan argitaratuko da.

Ebazpen horrek ondorioak izango ditu EHAAn argitaratzen denetik, bertan besterik xedatu ezean behintzat.

8.– Ebazpen honen aurkako errekurtsioak.

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetzako zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpena EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Bilbao, 2020ko azaroaren 27a.

Emergentziak erakundeko zuzendari gerentea,
OSCAR ALLER GARCIA.